

Irurtzunen, bi mila eta zortziko maiatzaren seian, arratsaldeko zazpiak direnean, Ohiko Bilkura egitearren Irurtzongo Udaleko Udalbatza, legeak agintzen duen moduan deituta, Batzar-gelan elkartu da Juan Jose Iriarte Vitoria alkate-lehendakaria buru dela. Bertan izan dira ondoren aipatzen diren zinegotziak:

Arrate Zabalo Ochotorena
Francisco Goicoechea Arbizu
Jose Javier Recalde Maestre
Saray Ongay Garcia
Jose Luis Viñas Estudillo
Jose Peinado Cuesta
Miguel Angel Navarrete Cuevas
Luis Enrique de la Calle Moreno
Eduardo Murugarren Frances
Francisca Arruabarrena Quintana

Eta idazkaria naizen hau, Santos Iragui Hualde.

AURREKO BILKURAREN AKTA ONETSI

Bilkurari hasiera emanda, udalburuak deialdiarekin batera banatu den 2008ko apirilaren 22an egindako Bilkuren Aktari zinegotziren batek oharren bat egin nahi ote dion galdetu du. Oharrik egin ez zaionez, aho batez onartu da.

ALKATETZAK HARTUTAKO ERABAKIEN IRAKURKETA

2008ko apirilaren 22az geroztik Alkatetzak eman dituen Ebazpenak irakurri dira eta, honenbestez, zinegotziak jakinaren gainean daude.

ITURRASKARRI PROIEKTUA

Irurtzongo zonaldeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak sustatzen duen Iturraskarri proiektuari buruzko espedientearen dagoen dokumentazioa aztertuta, eta Gizarte Ongizate eta Emakumearen Arloa Batzordeak 2008ko apirilaren 24an egindako bilkuran onartutako proposamenarekin, ondoren jasotakoa onartu da Iriarte, Goikoetxea, Recalde, Viñas eta Murugarren jaunen, eta Zabalo, Ongay eta Arruabarrena andreen aldeko botoarekin. Abstentziora jo dute Peinado, Navarrete eta De la Calle jaunek.

1.- Proiektu horretarako aurkeztutako aurrekontua, eta horren barnean Udal honi dagokion kontua onartzea.

2.- Kopuru horretatik % 50 2008ko ekainaren 1a baino lehen ordaintzea, eta gainerakoa (% 50) 2009ko urtarrilaren 15a baino lehen.

3.- Udalak "Zuk aukeratu, zuk erabaki" programaren bitartez Nafarroako Kutxan sortzen duen mozkinaren % 33,33, gutxienez, Iturraskarri proiektura bideratzea. Portzentaje hori % 100ekoa izan daiteke Udalak hala erabakiko balu.

4.- Proiektuak jaso ditzakeen subentzioak jaso ezean Irurtzungo zonaldeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatean sor litekeen defizita Udalak bere gain hartzea. Balizko horretan, proiektuan parte hartzen duten udalek beren gain hartuko lukete defizita, proiektuaren kostu osoan bakoitzak duen parte-hartzearen arabera.

5.- Mankomunitatean kaudimen-arazoak sortzen badira, Iturraskarri proiektuan parte hartzen duten Udalek gastuak beren gain hartuko dituzte, proiektuan duten parte-hartzearen arabera.

Aipatu akordio horiek hartu aitzin, Viñas jaunak esan du Iturraskarri proiektuaren barnean, Udal honi dagokionez, bideak berreskuratuko direla, eta kostua, 14.500 euro 2008 eta 2009 urteetarako, inbertsioen ataletik finantzatuko direla.

KIROL-ARLOKO SUBENTZIOAK

"Irurtzungo Areto-futbol" taldeak diru-laguntza jasotzeko eskaerari buruzko espedientean dagoen dokumentazioa aztertuta, eta Kirol Batzordeak 2008ko apirilaren 28an egindako bilkuran onartutako proposamenarekin, 400 euroko diru-laguntza ematea erabaki du aho batez, 2008ko Aurrekontuko 4523 48203 partidaren kargura.

BATZORDEEN INFORMAZIOA

Hirigintza, Etxebizitza, Partzuergoa eta Ingurumena.

Batzordeburuak Artadia tunelaren inguruan, eta Lizarra kaleko bidezorua egokitzearen inguruan Herri Lanetarako zuzendari nagusiarekin lortutako akordioen berri eman du. Lehenari dagokionez, esan du Nafarroako Gobernuak bere gain hartuko dituela proiektuaren zerbitzu-

sariak. Bigarrenari dagokionez, berriz, Nafarroako Gobernuak bere gain hartuko du bide-zorua egokitzea, eta Udalak arketak egokitzea.

Batzordeburuak, halaber, Astraingo saihesbidearen inguruan Nafarroako Gobernuak hartutako akordioaren berri eman du; hau da, behin betikoz Ekialde-3 alternatiba aukeratu dute, trafikoa herritik ateratzen ez duen alternatiba.

GALDE-ESKEAK

Murugarren jaunak azken horren harira galdetu du Astraingo Saihesbidearen inguruan Nafarroako Gobernuak hartutako akordioarekiko aurreikusten diren jardueraz.

Udalburuak adierazi du erabaki hori Saihesbidearen aldeko Plataformak aztertu ondoren, herritarrei bilerara deituko zaiela.

Murugarren jaunak, halaber, galdetu du bigarren hezkuntzako institutu berriei buruz argitaratutako informazioez; izan ere, informazio horretan ez da aipatzen Irurtzunen halakorik egiteko aukera.

Udalburuak azaldu du argitaratutako informazioa Hezkuntza Departamentuak aztergai duen lau urteko planeko aurreikuspenen ingurukoa dela, eta teorian gehiago sartzeko aukera zabalik badago ere, badirudi behin betikoa dela. Hala ere, esan du Udalak aipatu departamentuarekin hitzordua duela, aferari buruzko zuzeneko informazioa lortze aldera.

Azkenik Murugarren jaunak Arrasateko udalburua, EAE-ANVkoa, izan du hizpide, eta esan du Estatuak errepresioaren gurpil zoroan beste urrats bat eman duela. Bere iritziz, udal-akordioen bitartez alderdi hori alkatetzatik kentzea lortu ez, eta epaileengana jo da hori lortzeko. Halako jarduerak bortitzak direla esan du, argi eta garbi bortizkeria sortzen dutenak.

Aztergai gehiagorik ez dagoela, eta arratsaldeko zazpiak eta hamabost minutu direnean, udalburuak bilkura amaitutzat jo du. Idazkari naizen honek bilkuraren Akta jaso, eta horren Egiaztapena egiten dut.